

DIRU-SARRERAK

Hasieran inbertsio txiki bat egitea beharrezkoa da. Lehendabizi enpresa batekin harremanetan jarriko gara gure aplikazioaren logoa sortzeko, oso garrantzitsua delako. Horrez gain, beste diru kopuru bat inbertitu behar izango dugu aplikazioa merkaturatzeko. Jendea erakartzeko enpresa publizitario baten laguntza eskatuko dugu.

Gure bezeroek ez dute ezer ordaindu behar izango aplikazioa dohain izango baita. Dena den, etekinak deskarga kopuru bidez jasoko ditugu.

Proiektua sortu dugun partaideok etekinen ehuneko bat jasoko dugu, denok kopuru bera, eta beste ehuneko bat hobekuntzak egiteko erabiliko dugu, adibidez lan tresna berriak erosteko edota hauek hobetzeko.

